



ELKARTEA • ASOCIACIÓN  
**MARGOTU**

2023 ko  
TXOSTENA



## AURKEZPENA [ 3 ]

### FORMAKUNTZA [ 4 ]

1. Oinarrizko mailako Lanbide Heziketako Zentroa
2. Langabeentzako Lanbide Heziketa
3. Etengabeko Lanbide Prestakuntza


### ESKU-HARTZE SOZIALA [ 7 ]

1. Emakumeak eta guraso bakarreko familiak gizarteratzeko eta laneratzeko zentroa
2. Emagaitu programa
3. Aldatuz programa
4. Caixa Proinfancia programa
5. Europako elikagaien laguntza-programa
6. Bilakatu programa
7. Aukerak Suspertzen programa
8. Osatu programa
9. Laguntza ekonomikoak
10. Gizarte partaidetza eta boluntarioritza

### ETENGABEKO KALITATEA ETA HOBEKUNTZAREKIN KONPROMISOA [ 16 ]

1. Sariak eta etengabeko hobekuntza
2. 2023ko jarduera aipagarrienak

# 2023 URTEAN ZEHAR **844** PERTSONEKIN LAN EGIN DUGU GUZTIRA



**MARGOTU** irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia zailtasun bereziak dituzten kolektiboen gizarteratzea da.

Profesionalen eta boluntarioz osatua, gure jarduera honako arlo hauetan garatzen dugu.

- Formakuntza
- Gizarte esku-hartzea



# FORMAKUNTZA

# OINARRIZKO MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROA

## HARTZAILEEN KOLEKTIBOA

Derrigorrezko Bigarren hezkuntza gainditu ez duten eta 15 urte baino gehiago duten gazteak.

## PARTE HARTU DUTE

**160**

IKASLEAK

**99** EMAKUME  
**61** GIZON

Oinarrizko mailako LHko irakaskuntzen helburua da:

- Hezkuntza sisteman ikasleen iraunkortasuna erraztu, garapen pertsonalerako eta profesionalerako aukera gehiago eskaini.
- Lanbide Heziketako oinarrizko prestakuntza-zikloen iraupena 2.000 ordukoa da, bi ikasturteko iraupena.
- Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak ondoko modulu profesionalak barne hartzen ditu:
  - Gaitasun profesionalak eskuratzea helburu duten ezagutza teorikopraktikoetako arloek osatzen dituzten **moduluak**.
  - Ohiko blokeekin erlazionatuta dauden moduluak, **bizitza osoan zehar gaitasun pertsonalak, sozialak** eta etengabeko ikaskuntzak garatzea bermatzen dituzten blokeak:
    - Komunikazio modulua eta Gizartea.
    - Zientzia Aplikatuaren Modulua.
  - Prestakuntza **modulua, lantokietan**.

Eskaintzen diren profil profesionalak:

- Ile-apainketa eta estetika: Estetika espezialitatea
- Ile-apainketa eta estetika: Ile-apainketa espezialitatea
- Administrazio Zerbitzuak
- Elektrizitatea eta Elektronika


Zentroaren hezkuntza proiektuaren barruan, zeharkako programak garatu ditugu, arrisku egoerak aurkitu, aurreikusteko, murrizteko eta arintzeko. Honako hauek dira:

- Droga menpekotasunen Arriskuak Murrizteko eta Prebentziorako Programa, gizarte bazterkeria arriskuan dauden gazteentzat.
- Sentsibilizazioa eta kultur arteko bitartekotza, arrisku egoeran dauden gazteentzat.
- Emakumeen aurkako jokabide indarkeriarako kontzientzia eta prebentzio programak.



## EMAITZAK

2023an amaitu duten ikasleen %90 Batxilergoan edota Erdi Mailan sartu dira.



# 2

## HARTZAILEEN KOLEKTIBOA

Langabeak

### PARTE HARTU DUTE

# 349

PERTSONA

250  
EMAKUME

99  
GIZON

## LANGABEENTZAKO LANBIDE HEZIKETA

2023an enplegurako prestakuntza-ekintzak garatu ditugu, eta guztira **4.125 ordu teoriko-praktiko** eman ditugu, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabeei zuzenduta.

24 prestakuntza-ekintza eman dira:

- 4 Ile-apainketako profesionaltasun-ziurtagiriak, 2. maila
- 4 profesionaltasun-ziurtagiri, 1. maila: ile-apainketako zerbitzu osagarriak
- 1. mailako lanbide-ziurtagiriaren aurretiko prestakuntzarako 3 ikastaro: ile-apainketako oinarrizko zereginak
- Enplegagarritasunerako oinarrizko gizarte- eta lan-trebetasunei buruzko 3 ikastaro
- Konpetentzia digitalei buruzko 3 ikastaro
- Eskuetako eta oinetako tratamendu estetikoari buruzko 2 ikastaro
- Azazkal artifizialei buruzko 2 ikastaro
- Eskuetako eta oinetako zaintza estetikoaren profesionaltasun-ziurtagiri 1, 2. maila
- Ilea mozteko 2 ikastaro eta I. eta II. teknika osagarriak



# 3

## HARTZAILEEN KOLEKTIBOA

Langileak

### PARTE HARTU DUTE

# 12

PERTSONA

11  
EMAKUME

1  
GIZON

## ETENGABEKO LANBIDE PRESTAKUNTZA

Langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko Fundaek diruz lagundutako etengabeko lanbide-prestakuntzarako ekintzak dira.

2023an 6 prestakuntza-ekintza garatu ditugu:

- Genero-berdintasunean espezializatzeko 4 unibertsitate-ikastaro
- Ikuspegi errestauratibo erlazionalari buruzko 2 ikastaro (I eta II)
- Zaurgarritasun-egoeran dauden Emakume eta Familiekiko Eskuhartze Psikosozialeko 2 Ikastaro (III eta I)





ELKARTEA • ASOCIACIÓN  
**MARGOTU**

# ESKU-HARTZE SOZIALA

7

## HARTZAILEEN KOLEKTIBOA

Arrisku edo gizarte bazterkeria egoeran dauden emakume eta familientzako.

## LURRALDE-EREMUA

LURRALDEZ GAINDIKOA

## PARTE HARTU DUTE

**103**  
EMAKUME



# EMAKUMEAK ETA GURASO BAKARREKO FAMILIAK GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO ZENTROA

Arriskua eta gizarte bazterketa pairatzen duten emakume eta familien gizarteratzea sustatzeko programa integrala eta espezializatua da.

Laguntza sozio- hezitzaile eta psiko- sozialaren bitartez, familia erabiltzaileak lan munduan txertatzea sustatzen da, horrela, beraien bizi kalitatea hobetuz, emakumearengan eragina duten faktore guztiak kontuan izanik, hauek arrisku larriari eta desabantailan kokatzen bai dituzte emakumeak eta beraien zaintzapean dauden adin txikikoak.

Auzo baliabideak eta sare lanak koordinatuz, orientazioa, gizabanakoari laguntza, haurrentzako jarduera sozio- hezitzaileak, baita indartze ekintzen eta gizarte parte-hartzearen bitartez, ere zerbitzu integrala eskaintzen du.



Programaren helburu orokorra da erabilera anitzeko egoeran edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeak buru dituzten emakumeen eta guraso bakarreko familien gizarteratzea eta ongizate psiko-soziala sustatzea.



### ESKAINTZEN DITUGUN ZERBITZUAK:

- Lagun egite psiko-soziala.
- Ahulduntzeko taldeko lagun egite psikoterapeutikoa
- Bakarkako eta taldeko lagun egite sozio-hezitzailea
- Laguntza eta inguruko parte hartze sozialerako sareak sortzea
- Adingabeen eta menpekotasuna duten pertsonen zaintza beharretan laguntzea
- Ahulduntze jarduerak eta komunitate-partehartzea
- Bakarkako eta taldeko lagun egite soziolaborala
- Bitartekotza laborala enpresekin

ARTATUTAKO EMAKUMEEN %**52** GURASO BAKARREKO FAMILIAK DIRA

**103** GIZARTERATZEKO IBILBIDE EGIN DIRA

**1.702** SAIO PSIKOHEZITZAILE EGIN DIRA

%**82** LAGUNTZA-SARE SOZIALA HOBETU EGIN DU

%**82** EGOERA PSIKO-SOZIALA HOBETU DU

%**94**EK ENPLEGAGARRITASUNA HOBETU DU EDO ENPLEGUA AURKITU DU



2



## EMAGAITU PROGRAMA

Gizartean baztertuta edo arriskuan dauden emakumeentzat prestakuntza ibilbideak oinarritzko gaitasun instrumentaletan, pertsonaletan, sozialetan eta digitaletan.

**Emagaitu** programaren helburua garapen pertsonalerako eta profesionalerako gaitasunak eskuratzea eta garatzea da, bereziki oinarritzkoak, garapen pertsonal eta profesionalerako, jabekuntzarako, enplegagarritasuna hobetzeko, gizarteratzeko eta gizartean aktiboki parte hartzeko etengabeko ikaskuntza erraztuko dutenak.

ESKAINTZEN DITUGUN ZERBITZUAK:

- Oinarritzko gaitasun instrumentalak, pertsonalak eta sozialak.
- Lanerako oinarritzko gaitasun instrumentalak eta digitalak.

**96** EMAKUME TREBATUTA

**8** TREBAKUNTZA EKINTZAK

**276** TREBAKUNTZA ORDU

3



## ALDATUZ PROGRAMA

Emakumeen aurkako indarkeriazko portaeren gaineko sentsibilizazioa eta prebentzioa, arriskua edota gizartebazterketa eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakume eta haurrekin

Programaren helburua emakume, haur eta mutilekiko genero indarkeria prebenitzea da, banakako, taldekako eta familiako prestakuntzaren bidez, indarkeriarik gabeko bizikidetzak-espazioak eraikiz, **elkar zaintzeko, tratu ona emateko eta hezkidetzak lantzeko kultura haztatuz.**

**70** EMAKUME PARTE-HARTZAILE

**39** NESKA ETA **31** MUTIL PARTE-HARTZAILE

EMAKUMEEKIN EGINDAKO PREBENTZIO-ORAKO **349** ORDUKO TALDE-SAIOAK

NESKA-MUTILEKIN EGINDAKO **110** TALDE-SAIOAK

**2** FAMILIA-TAILER EGIN DIRA

ESKAINTZEN DITUGUN ZERBITZUAK:

- Banakako eta taldeko saioak.
- Familientzako tailerrak.
- Ahalduntze-jarduerak eta partehartze komunitarioa.



4



## CAIXA PROINFANCIA PROGRAMA

Caixa Proinfancia programaren helburua da pobrezia-aren belaunaldien arteko transmisio-zirkulua haustea eta haurrei etorkizunerako aukerak eskaintzea da.

Horretarako, esku-hartze integrala egiten dugu, haurrei eta haien familiei ondasun eta zerbitzu hauek eskainiz:



ESKAITZEN DITUGUN ZERBITZUAK:

- Hezkuntza-errefortzua
- Hezkuntza ez-formala eta denbora libre
- Laguntza psikoterapeutikoa
- Familientzako hezkuntza-laguntza
- Haurren elikadura eta higienarako laguntzak.
- Eskola ekipamendurako laguntzak

**151** ARTATUTAKO PERTSONAK  
**45** EMAKUME **39** NESKAK  
**23** GIZON **44** MUTILAK

**46** ARTATUTAKO FAMILIAK

HEZKUNTZA-ERREFORTZUKO  
**576** SAIOAK

AISIALDIKO JARDUERETAN **64** SAIOAK

FAMILIENTZAKO HEZKUNTZA  
LAGUNTZAKO **62** SAIO

**240** SAIO PSIKOTERAPEUTIKO  
EGIN DIRA

**55** ESKOLA-EKIPAMENDU  
ENTREGATU DIRA

HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENERAKO  
**4** LAGUNTZA EMAN DIRA

5



## EUROPAKO ELIKAGAIEN LAGUNTZA-PROGRAMA

FEAD-FEGA Europako elikagaien laguntza-programa, arropa eta jostailuen dohaintza.

ESKAITZEN DITUGUN ZERBITZUAK:

- Behartsuei Laguntzeko Europako Funtsaren Programa Operatiboko Banaketako Erakunde Elkartua (OAR) garen aldetik, premia handiena duten pertsonen elikagaiak doan banatzen dizkiegu, laguntza-neurriekin batera.
- Inplikazioaren bidez arropa eta jostailuak ematea.



**84** ARTATUTAKO PERTSONAK  
**30** EMAKUME **21** NESKAK  
**17** GIZON **27** MUTILAK

**2.656** KG ELIKAGAI  
ENTREGATU DIRA

**37** MUTIL ETA **24** NESKAK  
JOSTAILUEN ETA ARROPEN  
DOHANTZAK JASO DITUZTE

# 6

## HARTZAILEEN KOLEKTIBOA

Arrisku handiko edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden 15-25 urteko gazteak eta familiak.

## PARTE HARTU DUTE

**134**  
GAZTE

**73** EMAKUME  
**61** GIZON

**21**  
FAMILIA

# “BILAKATU” ZERBITZUA

Arrisku handiko edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden gazteak eta familiak helduen bizitzara eramaten laguntzea.

Gizarte bazterkeria edo arrisku handiko egoeran dauden gazte eta familia batzuei laguntzea du helburu zerbitzu honek, helduaroko bizitza orekatu, aberasgarri, arduratsu eta autonomia pertsonal, sozial eta lan-autonomia handiagoa sustatuko duen prozesu bat, bere ahalmenak eta gaitasunak garatuz, **ESKUBIDEEN IKUSPEGIAN** oinarritutako hezkuntza-proiektu baten bidez.

HAUEK DIRA JARDUERAK:

## ZENTRO IREKIA TOPAGUNE

Nerabeen arteko topaketa eta prebentzio-gune bat da, pertsona erreferentzialen bidez, aisialdiko jarduera osasungarriak, harreman osasuntsuagoak sortzea eta egiteko, izateko eta egoteko eredu positiboagoak eskaintzen ditu.

**76** ARTATUTAKO PERTSONAK  
**33** EMAKUME **30** GIZON

**9** BATZAR EGIN DITUGU  
GAZTEEKIN

**41** GAZTEK JASO DUTE  
HEZKUNTZA ERREFORTZU

**18** NESKA **23** MUTIL

**26** GAZTEK AISIALDIKO ETA  
DENBORA LIBREKO JARDUERETAN  
PARTE HARTU DUTE

**13** NESKA **13** MUTIL

IZAERA LUDIKOA ETA  
GIZARTE-HEZKUNTZAKO  
**66** TALDE-TAILERRAK  
EGIN DITUGU



## “BILAKATU” ZERBITZUA



### FAMILIEN ESKU-HARTZE PROGRAMA

Familekin lan egiteak haien buruaren ikuspegi positiboa sustatzea, eta haien seme-alaben emantzipazio-prozesua arrakastaz lagundu dezaketen tresnak eskuratzea du helburu.

**22** ARTATUTAKO  
FAMILIAK

**133** BANAKAKO  
SAIOAK

**1** GAIKUNTZA ETA  
AHALDE TASUN  
POSITIBOKO  
FAMILIA TALDEAK

### ETXEBIZITZARAKO GIZARTE-LAGUNTZA

Bazterketa-arriskuan edo kalean dauden gazteak gizarteratzeko prozesu osoan, banakako ibilbi-deen bidez, laguntza zehatza ematea, behar-beharrezko ondasunen laguntza ekonomikoen bidez.

**17** ARTATUTAKO PERTSONAK

**8** EMAKUME **9** GIZON

**136** BANAKAKO  
GIZARTE ETA HEZKUNTZA  
SAIOAK

**3** SAREKO ENTITATEEI  
LAGUNTZEA

### LAGUNTZA PSICOLOGIKOA

Behar bereziak dituzten gazteei zuzendutako eskuhartze psiko-hezitzailea eta **zailtasunak** gainditzeko laguntza emozionala.

**42** GAZTE  
ONURADUNAK

**20** NESKA  
**22** MUTIL

### ESKUTIK PROGRAMA

Gizarte, hezkuntza eta lan izaerako laguntza indibidualizatua; banakako saioak, akonpaimendu presentzialak, koordinazio eta sare lanaren bitartez.

**33** GAZTE

**18** NESKA **15** MUTIL

**248** BANAKAKO  
SAIOAK

**1** TALDEKO GIZARTE  
ETA HEZKUNTZA  
TAILERRAK

**10** SAREKO ENTITATEEI  
LAGUNTZEA



## “BILAKATU” ZERBITZUA



### BIENTRATARTE PROIEKTUA

Bientratarte proiektuaren helburua nerabeen artean babes-faktoreak garatzea da, haurren eta nerabeen eskubideak ezagutzuz, gizarte-konpromisoan eta komunitateari emandako zerbitzuan oinarritutako ikaskuntza esanguratsuen esperientziak eskainiz eta **TRATU ONAREN KULTURA** sustatuz.

# 101

PARTAIDE,

**38** GIZON  
**63** EMAKUME

# 56

BANAKAKO  
SAIOAK

EKINTZA HAUEK EGIN DIRA:

### “Hemen goian” BIDEOKLIP

“Hemen Goian” abesti-proiektuarekin jarraituz, abestiaren bideoklip bat egiten ari gara, ikasleen parte-hartzearekin. Bideokliparen esteka 2024ko ekainerako argitaratuko da.

Bideoklipa argitaratu arte, grabazioarako agertokia prestatzeko Making ofaren esteka aurkezten dugu. Ikasleen ordezkariak parte hartuko dute, eta grabazioarako behar den instalazio elektrikoa egin zuten elektrizitateko eta elektronikako 1. mailako ikasleak nabarmenduko ditugu.



[https://youtu.be/-oOwFbeMI\\_g](https://youtu.be/-oOwFbeMI_g)



### “Hemen goian” ABESTIA

Masustegi auzoko San Gabriel auzo-elkartarekin eta Monte Caramelo auzoarekin lankidetzan egin da arte-produktu hau. Helburua elkarbizitza hobetzea izan da, elkar ezagutu, entzun, hitz egin eta ulertzeko guneak sortuz, eta bi kolektiboak positiboki ikusaraztea. Azken emaitza “Hemen Goian” izeneko abestia izan da. Marcos Vegak (Eric Draven), auzoko bizilagunak, eta Ainhize Pinedok (CFPGBko ikasle ohia) interpretatzen dute.

[https://www.youtube.com/watch?v=958StmcCA\\_A&t=2s](https://www.youtube.com/watch?v=958StmcCA_A&t=2s)

## “BILAKATU” ZERBITZUA



### PODCAST: “Entzunak izateko eskubidea”

Podcast horretan gazteek hainbat iritzi eta argudio ematen dituzte nerabe gisa entzunak izateko beharra justifikatzeko, guztien arteko bizikidetzarako funtsezko ardatz gisa. Kontzientzia hartzeko prozesu indibidual eta kolektiboa izan da, erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze handiagoa izateko; izan ere, parte hartzea babes-faktore bat da, eragin eta talde bateko edo komunitate bateko kide izateko aukera ematen diena.

[https://soundcloud.com/user-623674157/derecho-a-ser-escuchadosas?si=c90cedd709124c6dbfe12ae984e6c6ed&utm\\_source=clipboard&utm\\_medium=text&utm\\_campaign=social\\_sharing](https://soundcloud.com/user-623674157/derecho-a-ser-escuchadosas?si=c90cedd709124c6dbfe12ae984e6c6ed&utm_source=clipboard&utm_medium=text&utm_campaign=social_sharing)

### PODCAST: “Gure eskubideen soinua”

Podcast hau egin dugu gazteek landu nahi zituzten eskubideak taldeka islatuz. Introspektzio-ariketen bidez, gazteek, “SOundtrap” online aplikazioaren eta oinarri edo demo musikal txiki baten bidez, soinua bihurtu zituzten eskubide desberdinei buruzko gogorak hautatu.

<https://www.youtube.com/watch?v=UMaTrqhsBCI>



## AUKERAK SUSPERTZEN ESKOLAZ KANPOKO LAGUNTZARAKO PROGRAMA KOMUNITARIOA

2020tik hasita, Margotu Aukerak Suspertzen programaren hezkuntza-laguntzarako programa komunitarioaren parte da, Eusko Jaurlaritzako Familien eta Haurren saileko Zuzendaritzak sustatua.

Helburua eten digitala murriztea eta desabantaila sozialeko egoeran dauden haurren, nerabeen eta familien gaitasunak indartzea da, tokiko sare komunitarioa aktibatuz.

**14 mutil, 26 neska eta haien  
famiak artatu ditugu.**



8

## HARTZAILEEN KOLEKTIBOA

Atzerriko gazteak eta familiak, 15 eta 35 urte bitartekoak

## PARTE HARTU DUTE

**109**

PERTSONA

50 EMAKUME

39 GIZON

**20**

FAMILIA

# OSATU PROGRAMA

## Gazte eta familia etorkinak gizartean eta lanean txertatzeko

Zerbitzu honen helburua atzerritarrak gizarteratzea eta laneratzea da, **GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO BANAKAKO PLANA** garatuz, bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalen bete-betean parte hartzeko behar diren aukerak eta baliabideak bultzatuko dituzten ekintzak gauzatuz.

### EGITEN DIREN EKINTZAK:

- Akonpainamendua eta bitartekaritza soziala.
- Lan-bitartekotza.
- Laguntza psikologikoa.
- Gizartearen eta komunitatean parte-hartzea.

**15** TALDE SAIO, LANA BILATZEKO ETA ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO

**195** BANAKAKO SAIOAK GAZTEEKIN ETA

**113** SAIO FAMILIEKIN

**17** PERTSONA LAN-MERKATUAN SARTU DIRA

**12** LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA JASO DUTE

**7** EMAKUME **5** GIZON

**1** ALFABETATZE TAILERRAK GAZTELANIAZ

**4** EKINTZA KOMUNITARIOAK EGIN DIRA

9

## HARTZAILEEN KOLEKTIBOA

Arriskuan edo baztertuta dauden pertsonak

## PARTE HARTU DUTE

**85**

FAMILIA

**325**

LAGUNTZA

# LAGUNTZA EKONOMIKOAK

## Arriskuan edota baztertuta dauden pertsonak eta familiak gizarteratzeko laguntza ekonomikoak

**Victor Tapia eta Dolores Sainz Fundazioari** ezker, 2023an zehar egoera zailean dauden 85 familiei 325 laguntza ekonomikoak eman diegu oinarritzko beharrak betetzeko. Laguntza horiek erakundeak familia horiekin egiten dituen gizarteratze-ibilbidea bultzatzen dituzte



10

## PARTE HARTU DUTE

**25**

PERTSONA


24 EMAKUME

1 GIZON

# GIZARTE PARTAIDETZA ETA BOLUNTARIOTZA

Boluntariotzaren partaidetzak hiritarrek gizartean parte-hartzeko bide bat da. Honen bitartez, erakundeak gizarte-sarearekin lotura izatea bermatzen du, eta, aldi berean, kohesioan eta egituraketan laguntzen du.

2023 urteko boluntarioren egoera sexuaren arabera bereizita:





# ETENGABEKO KALITATE ETA HOBEKUNTZAREKIN KONPROMISOA



# SARIAK ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

## VI BBK Deia

Elkartasun Sariak / Premio Solidario 2021

**BBK DEIA** Elkartasun Sariak VI. edizioan elkartasun lana egiteagatik saritu dute Margotu.



Bi aldiz saritu da **BELDUR-BARIK** lehiaketan. Horren helburua gazteen artean sexu-indarkeria saihestea eta berdinketaren aldeko gizartea sustatzea da.



**FINALISTAK** la Caixa Gizarte Ekintzaren Berrikuntzaren eta Gizarte Eraldaketaren Sarietan.



Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren arloko **EMAKUNDEKO LANKIDETZA-ERAKUNDEA** gara.



Interes orokorra bere jardueren garapenaren bidez sustatzen duenez, Margotu **ERABILERA PUBLIKOAREN ADIERAZLE** erakundea izendatua izan da.



**BERDINTASUNA SARIA** Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa, gure erakundeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egindako lana aintzatetsiz.



UNE-EN-ISO 9001: 2015 ZIURTAGIRIA, Margotuk 2006ko irailetik **KALITATEAREN KUDEAKETA SISTEMAREN ZIURTAGIRIA** du. Emandakoak Ikuskaritza, Auditoria eta ziurtagiritzak eskainia. IAC.

UNE-EN ISO 14001:2015 Ikuskaritza, Auditoria eta Ziurtagiritzak eskainia. Adok ziurtagiria, 2020-05-28. **INGURUMEN KUDEAKETAKO SISTEMEN ZIURTAGIRIA** du Margotuk 2020ko maiatzetik.



## 2023ko JARDUERA AIPAGARRIENAK

MARGOTU, gizarte-aldaketarekin, integrazioarekin eta aniztasunarekin duen konpromisoan, hainbat jarduera egin ditu:

### MARGOTU IRRATIAN

Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela-eta, Radio Euskaditik elkarrizketak egin dizkigute Emakumeak eta Guraso Bakarreko Familiak Gizarteratzeko Zerbitzura joaten diren profesionaleri eta emakumei.

Elkarrizketaren helburua emakume migratzaileen istorioak ikusaraztea eta haiei ahotsa ematea izan zen.

<https://margotu.org/margotu-radio-euskadin/>



### A25, BILBOKO UDALAREN EKITALDI INSTITUZIONALA

Azaroaren 25ean, Arriaga Antzokira joan ginen, Berdintasun Arloaren bitartez, Bilboko Udalak antolatutako ekitaldira. Ekitaldi horretan alkateak, talde politikoek, erakunde publikoetako ordezkariak, emakumeen eta feministen elkarteak, eta abarrek parte hartu zuten.

<https://margotu.org/25n-emakumeentzako-eta-guraso-bakarreko-familientzako-gizarteratze-zentroan-2/>



### MARGOTU GJHak

Aurten, sentsibilizazio-tailerrak eta jarduera komunitarioak egin ditugu Garapen Jasangarriaren Helburuei (GJH) buruz, bai Lanbide Heziketako Zentroko gazteekin, baita emakume eta guraso bakarreko familientzako gizarteratze-zentroko emakume eta adingabeekin ere.

### MARGOTUK “HEMEN GOIAN” PROIEKTUA AURKEZTU DU

Joan den martxoaren 17an, Basurtoko Gizarte Etxean “Hemen Goian” aurkeztu genuen. Ekitaldi hau, “BienTratarte” proiektuaren barne dago, zeinek eskubideen ikuspegi batetik, haurren eta nerabeen babesa eta tratua onartzea du helburu.

Lan hau Masustegui eta Monte Caramelo auzoko San Gabriel auzo elkartearekin elkarlanean egin da. Helburua elkarbizitza hobetzea izan da, elkar ezagutzeko, entzuteko, hitz egiteko eta elkar ulertzeko espazioak sortuz. Baita bi kolektiboak modu positiboan ikusaraztea ere.

Elkarlan honen azken emaitza gisa Marcos Vegak (Eric Draven), auzoko bizilagunak, eta Ainhize Pinedok (CFPGBko ikasle ohia) “Hemen Goian” abestia zuzenean aurkeztu digute.

Ekitaldian izan dira, halaber, San Gabriel Elkarteko bizilagunak, Marta Ajuria Bilboko Udaleko Ekonomia eta Ogasun Saileko zinegotzia eta Verónica Domingo eta Laura Pérez, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko Zuzendaritza sailakoak.

<https://margotu.org/margotuk-hemen-goian-proiektua-aurkeztu-du/>





#### IV. BILBOKO EMAKUME MIGRATZAILEEN AINTZAPENA

Bilboko Udalak "Bilboko Emakume Migratzaileen Aintzatespena" ekimenaren laugarren edizioaren sariak banatu ditu gaur goizean BBK Kunan. Saritutako zazpi emakumeen artean, **EMAKUME AGENTE KOMUNITARIOAREN KATEGORIAKO AIPAMEN BEREZIA**, BLESSING UWAGBALE-ri aitortu dute. Emakume horiek, emakume eta guraso bakarreko familientzako Gizarteratze Zerbitzuan parte hartu du.

**Zorionak Blessing!**

<https://margotu.org/iv-bilboko-emakume-migratzaileen-aintzapena/>

#### MARGOTU ATHLETIC-ekin

San Mamesen gau zoragarri batez gozatu dugu, Bizkaiko Foru Aldundiak koordinatutako Ondarearen Europako Jardunaldien kanpainaren barruan **BizkaiKOATik** jasotako sarrerei esker.

**Eskerrik asko eta aupa Athletic!!!**

<https://margotu.org/margotu-athletic-arekin/>



#### ZUK LOR DEZAKEZU

Hetelek Oinarritzko Lanbide Heziketako ikastetxeetan egiten den lan teknikoa eta giza lana erakutsi ditu. Ikus-entzunezko proiektu baten bidez, Hetele: Margotu eta Salesianos Deusto ikastetxeetako ikasleek ikastetxe horietatik igarotzeak bizitza nola aldatu dien kontatzen digute.

<https://margotu.org/zuk-lor-dezakezu/>

Salesianos Deustorekin batera parte hartu dugun Oinarritzko Lanbide Heziketari buruzko bideoak publikoaren saria lortu du Euskaliten lehiaketan.



#### MARGOTUREN GIZA PAISAIA

Aurten "Margoturen giza paisaia" proiektuaren 5. edizioa ospatu dugu, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zaugarritasun egoeran dauden gazteekin sentsibilizazio eta kultura bitartekotza egiteko programaren barruan. **Lan irabazlea "Oztopoak" izan da.**

Proiektu honetan, argazki-lehiaketa baten bidez, gure zentroaren aniztasun kultural, sozial eta pertsonala islatzen da, arreta gizaki gisa elkartzen gaituzten alderdietan jarriz, desberdintasuna zerbait natural eta aberasgarri gisa ulertuz.

<https://margotu.org/margoturen-giza-paisaia-2>



# LAGUNTZAILEAK



UNIÓN EUROPEA  
Fondo Social Europea



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN BAZKARITZA ERAGILEA  
INSTITUCIÓN VASCA DE LA MUJER



Lanbide  
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZIA  
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



Laudio Llodio  
LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA  
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO



FUNDACIÓN  
ANTONIO MENCHACA  
FUNDAZIOA



Fundación "la Caixa"



fundación  
carmen gandarias  
impulsamos tus proyectos



FUNDACION  
Víctor Tapia - Dolores Sáinz

# 2023 ko TXOSTENA

[www.margotu.org](http://www.margotu.org)



entzikunde gizon  
berdintasunera  
lurriketa erakunde



entzute kolaboratza  
gizonezko berdintasun  
erakunde



## **BASURTO-MASUSTEGI EGOITZA**

Estrada Masustegi kalea, 347, 2º  
48002 Bilbao  
Telf. 94 427 85 70  
Mail: [info@margotu.org](mailto:info@margotu.org)

## **ZORROTZA ZENTRUA**

Parroco Vicente Zabala kalea, 18  
48013 Bilbao  
Telf. 94 654 36 51  
Mail: [sis@margotu.org](mailto:sis@margotu.org)

ELKARTEA • ASOCIACIÓN  
**MARGOTU**